

## **COVID EGOERAREN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA**

Proposamen honen arrazoiak honako honetan oinarritzen dira:

Lehiaketak bertan behera uztera behartu gintuen konfinamendu bat igaro ondoren, ezin izan genuen aurreikusi bezala amaitu eta oraindik pandemia egoeran gaude. Izan ere, txerto bat aurkitu arte, ahalegin gehigarri bat egin beharko dugu guztion aldetik eta proposamen hau egiten dugu zuen iritzia jasotzeko.

### **1- UR-BOTILAK ERABILTZEA**

Norgehiagokako parte-hartzaile guztiek, jokalaria, epaile, arbitro, ofizial eta taldeetako gainerako kideek, banakako ur-botilatxo eraman beharko dute, partida hasi aurretik, ondoren eta partidaren zehar hidratatzeko. Etxeko ekipoak, beharrezkoa bada, ura eskeini beharko du botilatxo horiek betetzeko.

### **2- GEL HIDROALKOHOLIKOA**

Etxeko ekipoak, parte-hartzaileen eskura, eskuak garbitzeko gela jarriko du. Gela hori ohar-hartzaileen mahaian egongo da, behar izanez gero erabiltzeko. Hala eta guztiz ere, talde bakoitzak bere gel propio eramatera behartua egongo da.

### **3- MASKARILAK**

Bai ohar-kronometratzaileek, bai ofizial guztiek, entrenatzaileak izan ezik, maskara eraman beharko dute norgehiagokan zehar, eta dagozkion aktak egitean ere. Talde bakoitzak beharrezko maskarilak eraman beharko ditu norgehiagokara.

### **4- TENPERATURAREN EGIAZTAPENA**

Talde bakoitzak, norgehiagoka bakoitzaren aurretik jokalarien tenperatura egiaztatu beharko du.

### **5- AULKIEN DISTANTZIA**

Aulkien eta harmailen arteko distantzia 1.5 metrokoa ez den kiroldegietan, lehen harmaila-ilara libre utzi beharko da.

### **6- AGURRAK**

Partiduan parte hartzen dutenen arteko agurra epaileek bideratuko dute; zelaiaren erdian epaileak jarriko direlarik eta bi taldeek, bata bestearen aurrean pasilu bat osatuko dutelarik.

### **7- EGUTEGIAK**

Salbuespenezko egoerak direla-eta lehiaketa uneraren batean eten beharko balitz, baimen berezia eskatzen zaio Batzarrari Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Sailak denboraldian zehar egutegiak egokitu ahal izateko, Batzarrak aldaketa horiek gauzatzeko talde guztiei aurretik jakinarazi beharko die.